



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 11

18. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2007ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2007ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako 2007ko kontu orokorren azterketari buruz Nafarroako Comptos Ganberak emandako txostena ikusita, hona ERABAKIA:

1. Txosten horren jakitun dagoela adieraztea.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako 2007ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Egindakoaren laburpena (3. or.).

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (7. or.).
- III. Lanaren norainokoa eta mugak (7. or.).
 - III.1. Lanaren norainokoa (7. or.).
 - III.2. Mugak (8. or.).
- IV. Iritzia (8. or.).
 - IV.1. Kontu orokorrak (8. or.).
 - IV.1.1. Aurrekontuaren betetzea (8. or.).
 - IV.1.2. Egoera-balantzea (8. or.).
 - IV.1.3. Emaitza-kontua (8. or.).
 - IV.1.4. Oroitidazkia (8. or.).
 - IV.2. Legezketasun printzipioa betetzea (9. or.).
 - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera. (9. or.).

IV.4. Comptos Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (11. or.).

V. 2007ko kontu orokorrak osatzen dituzten egoera-orri finantzarioei buruzko laburpena (12. or.).

V.1. 2007ko aurrekontuaren likidazioa (12. or.).

V.2. 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza. (12. or.).

V.3. 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (13. or.).

V.4. Emaitzen kontua 2007ko abenduaren 31n (14. or.).

V.5. Diruzaintza-gerakina, 2007ko abenduaren 31n. (15. or.).

VI. Hitzarmen ekonomikoa (16. or.).

VII. Aurrekontu-kudeaketari lotutako zenbait gairi buruzko iruzkinak (16. or.).

VII.1. Langile-gastuei buruz (16. or.).

VII.2. Ondasunak eta zerbitzuak erosteaz (16. or.).

VII.3. Transferentziei buruz (17. or.).

VII.4. Beste batzuk (17. or.).

VIII. Enpresen sektore publikoa (19. or.).

IX. Zerga-gastuen azterketa (20. or.).

X. Aurrekontuetako kontusail handien eta txikien betetzea (22. or.).

XI. Gomendio orokorrak (23. or.).

XI.1. Aurrekontuak eta kontu orokorrak (24. or.).

XI.2. Kontabilitatearen kudeaketa (24. or.).

XI.3. Kontu-hartzailtza eta barne-kontrola (24. or.).

XI.4. Aurrekontuaren betetzea (24. or.).

XI.5. Ibilgetua (25. or.).

XI.6. Beste zenbait (25. or.).

Eranskina (26. or.).

Oharrak, Nafarroako Gobernuo bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurkeztutakoak (27. or.).

Nafarroako 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak

- Nafarroako 2007ko Kontu Orokorraren Foru Legearen Proiektua onesteko Hitzarmena.
- Nafarroako Gobernuak aurkeztutako oroitidazkia

Oharra: Nafarroako kontu orokorrak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfn Navarra.es/camara.comptos

EGINDAKOAREN LABURPENA

Txosten hau egitea nahitaezkoa da, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko Foru Legeari jarraituz, eta 1981eko ekitaldikoaz geroztik aurkeztu izan dugu. Bere helburu nagusia da Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea.

Nafarroako 2007ko kontu orokorreari dagokienez, lehenbiziko ondorio gisa aipatu behar dugu 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak Foru Ogasunaren egoera islatzen duela, salbu eta ibilgetuari eta haren funtzionarioen betebeharrak aktuarietatik eratorritako gorabeherei dagokienez.

2007ko aurrekontuaz denaz bezainbatean, bere likidazioaren barnean hartzen du ekitaldian zehar eginiko jarduerak.

Ekitaldiko aurrekontu-saldoa murriztu egin da, eta 2006an 112 milioiko superabita izatetik 2007an 0,6 milioiko izatera pasa da. Saldo horrek jatorri gisa du, diru-sarreretan, 4.294.949.207 euroko exekuzioa, eta gastuetan, 4.294.301.263 eurokoa. Azken horietan 423 milioi euroren gastu fiskalak sartzen dira.

Aurrekontu-emaizta lehenbizikoz ekitaldi honetan aurkezten da Kontabilitate Plan Orokorreko egiturari moldatuta; hots, finantzaketa-desbiderapenekin doitu. Doikuntza horiek aintzat harturik, aurrekontu-emaizta 287 milioiko superabita da.

Maniobra-funtsa 379 milioi eurokoa da. Alegia, epe laburreko kobrantza-eskubideek eta diruzaintzak modua ematen dute 2007ko abenduaren 31n

epe laburrerakoak diren ordainketa-betebeharrei erantzuteko.

Nafarroako Gobernuaren epe luzerako zorra 581 milioi eurokoa zen, eta balore negoziagarrietan ezarritako zorraren guztizko zenbatekoa, 610 milioi eurokoa. Enpresa publikoek epe luzerako zeukaten zorra 215 milioi eurokoa zen.

Ekonomia Ministerioaren kalkuluen arabera, eta kontabilitate nazionalaren ikuspegitik, emaitzak agerian uzten du 188 milioi euroko finantzaketa-ahalmena (superabita). Ekitaldian zehar, 30 milioi euroko balioa duen zorra amortizatu da.

2007ko urrian sinatu zen hitzarmen ekonomikoaren eguneratzea 2005-2009 bosturtekorako.

2007an, Ogasunari eta Ondareari buruzko foru lege berriak onetsi dira; lehena 2008ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, eta bigarrena 2007ko maiatzean. Txostenean aipatzen da bi legeek tratamendu desberdina ematen dietela sozietate publikoei.

Garrantzi handieneko gomendio gisa adierazten dira Foru Komunitateko Administrazioako kontabilitate-plan orokorra zehaztu, onetsi eta ezartzeari dagokiona; datuen eta informazioen ustiapen eta xehakapenei dagokienez hirugarrenen kontabilitate osagarria eta kontabilitate orokorra hobeki koordinatu eta integratzea; eta enpresen eta fundazioen sektorea arrazionalizatzeko aukera. Enpresen sektorea berrantolatzeke legearen zirriborro bat prestatu dela adierazi digute.

Azkenik, aurrekontuak doitzearen komenigarritasunari buruzko aipamen bat egiten da, ikusirik datozen ekitaldietan zer zailtasun sor daitezkeen aurrekontu-aldaketak egiteko, ingurugiro ekonomiko berriak Foru Ogasunaren gain izan dezakeen eraginaren ondorioz.

I. SARRERA

Nafarroako Gobernuaren 2008ko irailaren 8ko erabakiaz, Nafarroako 2007ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua onetsi zen. Foru Lege proiektu hori Nafarroako Comptos Ganberara igorri zen, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2008ko irailaren 22ko erabakiaren indarrez. 2008ko irailaren 24an sartu zen Comptos Ganberako Erregistroan.

Oroitidazkian jasotzen den bezala, kontu horiek, 8/1988 Foru Legeko 113. artikuluan xedatuari jarraituz, honakoek osatuak dira:

«• Nafarroako Parlamentuaren eta Comptos Ganberaren kontuak. Arartekoaren kontuak erantsi dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko

8/1988 Foru Legea onetsi eta ondoren sortutako erakundea baita.

- Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak (12).

- Sozietate publikoen kontuak (32). Sozietate publikoak dira 8/1988 Foru Legeko 5. artikuluan aipatzen direnak.

- Aurrekontu bereizia duten zuzenbide publiko-ko erakundeen kontuak: Nafarroako Kontseilua eta Ikus-entzunezkoen Kontseilua.

- 8/1988 Foru Legearen 4. artikulua aipatzen dituen kontuak. Honi dagokionez, aurrekontu orokorretan agertzen ziren fundazio publikoen (6) kontuak sartu dira, kasuan kasuko gobernu-organoei onetsiak izan baitira.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak honakoak biltzen dituzte: egoeraren balantze orokorreko datu bateratuak, emaitza ekonomikoaren eta ondarezkoaren kontua, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta haien ondareari, finantzei eta aurrekontu-betetzeari buruzko informazioaren oroitidazkia.

Sozietate publikoen urteko kontuak aurkezten dira haiei eginiko auditoria independenteen txostenekin batera, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 114. artikuluan xedatuari jarraituz.”

Laburbilduz, Nafarroako 2007ko kontu orokorreari buruzko dokumentua Ogasunari buruzko Foru Legean aipatzen diren entitateez osatua dago. Horretaz gain, aipatu foru legean agertzen ez diren baina Foru Komunitateko sektore publikoak diren beste entitate publiko batzuk ere jasotzen dira:

2007ko bigarren seihilekoan hartu zuten beren postuen jabetza maiatzeko hauteskundeetatik ateratako gobernu kideek, eta berrantolamendu bat egin zen, honako honetan zetzana:

- Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentua sortu zen.

- Departamentu hauek ere sortu ziren: Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza; Landa Garapena eta Ingurumena; Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua; eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak; horiek, hurrenez hurren, aurreko departamentu hauek ordeztu zituzten: Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura; Industria, Merkataritza eta Lana; Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria.

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia Landa Garapenerako Departamentuari atxiki zitzaion; departamentu hori aurreko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ordezkoa zen.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako Administrazioaren Modernizatorako Zuzendaritza Nagusia Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxiki zitzaion, telekomunikazioen azpiegitura-arloa izan ezik, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari atxiki baitzitzaion.

- Kontsumo-arloa lehengo Industria, Merkataritza eta Lan Departamentuaren mende zegoen, eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentu berria sartu zen.


- Kirol eta Gazteria Institututik Nafarroako Kirol Institutua eta Nafarroako Gazteria Institutua sortu ziren.

- Hezkuntza Departamentuan Euskararen Nafar Institutua sortu zen.

Aurrekontuaren ikuspegitik, antolakuntzaren aldaketa horiek ez dute ekarri beste kontusail edo programa batzuk sortzea, Erakundeekiko Harremanetarako Departamentu berria izan ezik; izan ere, departamentu horrek beharrezko kredituak lortu zituen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko. Kontu orokorretan departamentuen izen berriak erabili dira.


Hortaz, 2007ko abenduan, hau zen Foru Sektore Publikoaren osaera ⁽¹⁾:

(1) Gobernuak egindako eskeman, Start Up enpresaren kapitalaren ehuneko 16,03 Gedesa enpresarena da, baina, egia esan, Nafincorena da, eta hala jaso dugu enpresen taulan.



* Enpresa publikoak hurrengo orrialdean daude.

NAFARROAKO GOBERNUA



* KS: kapital soziala,
(euroak, milakotan).
* Data: 2007-12-31

Aurreko ekitaldian bezala, kontu orokorrak bi formatutan aurkezten dira, informazioa eskuragarriagoa izateko eta modu erosoagoan erabiltzeko:

- Paperezko argitalpen bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuei buruzko informazioaren atal aipagarrienak jasotzen eta laburtzen dituena. Sozietate publikoen kontuen laburpen-dokumentu bat ere badu.

- Euskarri digital bat, non entitate eta sozietate publikoen kontuak osorik sartzen diren, haiei buruz eginiko auditoria-txostenekin batera. Euskarri horretan aurrekontu-programen oroitidazkiak ere jaso dira.

Nafarroako kontu orokorrak kontsultagarri daude Nafarroako Gobernuaren webgunean.

Aurrekoa kontuan izanda, txostenak honako egitura du:

- Sarrera, helburua, norainokoa eta mugak jasotzen dituzten hiru epigrafe.

- Bi epigrafe iritziari eta finantza-egoera orri buruz (aurrekontu-likidazioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta diruzaintzako gerakinaren egoera).

- Bost epigrafetan hauek jasotzen dira: iruzkin labur batzuk Hitzarmen Ekonomikoari buruz; beste iruzkin batzuk kontuen zenbait alderdiri buruz; iruzkin laburrak enpresen sektore publikoaz; zerga-gastuei buruzko azterketa bat; eta beste bat aurrekontu-betetze handiena edo txikiena duten kontusailei buruz.

- Hamaikagarren epigrafeak egindako lanaren ondoriozko gomendioak jaso ditu.

- Eranskin batean, aurrekontuko betetze handieneko kontusailen zehaztapena aurkezten da.

- Halaber, Nafarroako Gobernuak prestaturiko oroitidazkia ere gehitu dugu.

Azterketa lana 2007ko maiatzetik urrira bitartean egin zuten auditore batek eta auditoriako sei teknikaririk osatutako taldeak, praktketan ari zen unibertsitate-ikasle baten laguntzarekin aldi batean, eta Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Gobernuko langileei eta, bereziki, Ekonomia eta Ogasun Departamentukoei, eskerak eman nahi dizkiegu gure lana egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Indarreko legeriarekin bat etorritik, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2008ko irailaren 22an hartutako erabakia betetz, 2007ko Nafarroako kontu orokorrak fiskalizatu ditugu, honako honi buruzko iritzia emateko:

- 2007eko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, fidelki islatzen ote dituzten, alderdirik behinenetan, ekitaldi horretako ondarea, aurrekontuen likidazioa eta erdietsitako emaitzak, aplikatzekoak zaizkion eta aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

- Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ekonomia- eta finantza-jarduera legezkotasunaren printzipioaren menpe ote dagoen.

- Foru Ogasunaren 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Nafarroako kontu orokorrei buruzko aurreko fiskalizazio-txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetze-maila.

Iritzi horren osagarri, ondorio bat eman dugu Nafarroako Gobernuak garaturiko eginkizunei atxikitako baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-mailei buruzkoa.

III. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. LANAREN NORAINOKOA

Gure lanaren norainokoaren jomuga izan da, batik bat, 2007ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta 2007ko ekonomia- eta ondare-emaitzen kontua aztertu eta zentsuratzea eta oroitidazkian aurkeztutako datuen iruzkinak eta barne-koherentzia berraztertzea, hori guztia Nafarroako Gobernuari eta haren erakunde autonomoei dagokienez.

Zenbait azterlan egin dira beste hainbeste alderdiri dagozkienak. Azterlan horien berri ematen da txostenaren berariazko ataletan, lehen ataletan adierazi bezala.

Kontu orokorra osatzen duten gainerako entitatei buruz, berriz, hauxe adierazi behar dugu:

- Ganbera honek erakunde parlamentario guztiak, Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua aztertu ditu, eta lan horien emaitzak txosten honetan bildu ditu.

- Enpresa publiko guztiek kanpoko profesionalen eginiko auditoriak aurkeztu dituzte. Arlo hone-

tan, gure jardunaren ardatza izan da kasuko txostena aztertzea, horretatik iritzia eta ondorio nagusiak ateratzea eta haiek alderatzea oroitidazkian adierazitakoarekin.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, ganbera honen fiskalizazio-prozedurei buruzko eskuliburuaren garatutakoak.

Finantza eta aurrekontu egoera-orriak berrikus-tean aplikatu dira aurreikusitako helburuak erdie-teko behar diren auditoria-probak eta -prozedurak, inguruabarren arabera. Prozedura horien artean, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuak egindako zenbait txosten erabili dira, eta Kontratazio Publikorako Batzordearen eta Herri Lan Departamentuaren oroitidazkiak.

Esparru operatiboan, eta ikusirik nolako mugak zeuden (ikus III.2 idatz-zatia), gure lanaren jomuga izan da Gobernuan aplikatzen den aurrekontu-antolaketa, programakakoa, orokorrean aztertu eta oroitidazkian ageri den informazioarekin alderatzea.

III.2. MUGAK

Hurrengoak jarri dio muga gure lanari:

Ezin izan dugu ondoriorik atera 2007ko baliabide publikoen kudeaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak lortu duen eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-mailari buruz, helburuen eta adierazleen definizioarengatik eta kalitatearengatik, horien exekuzio-mailaren jarraipenarengatik eta haien desbideratzeen azterketarengatik, bai eta aurrekontu-programetan aurkeztu beharreko informazioa modu heterogeneoan aurkezteagatik ere.

Bestalde, esan behar da kostuak kontabilizatzeko sistemarik ez dagoenez, ezin dela zehaztu zein den oinarritzko zerbitzu publikoak ematearen kostua. Hala ere, esan behar da, halaber, helburu hori ez dagoela aurreikusita kontu orokorren pres-taketan.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Nafarroaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak aztertu ditugu. Kontuak prestatzeko ardura, bai eta haien edukiarena ere, Nafarroako Gobernuarena da, eta laburbilduta jasota daude txosten honen V. atalean.

Zerga-gastuen erregistroari dagokionez, ekitaldi honetan 2005eko ekitalditik ezarritako kontabilitate-irizpide berak erabili dira. Aurrekontuetan erre-gistratutakoaren kopurua 423 milioi eurokoa da.

Gure jarduketaren ondorioz, hona hemen iritzia:

IV.1. KONTU OROKORRAK

IV.1.1. Aurrekontuaren betetzea

2007ko aurrekontuaren likidazioan azaltzen diren gastu eta diru-sarrerek ongi islatzen dute ekitaldi horretan Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek egin duten jarduera.

IV.1.2. Egoera-balantzea

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen egoera-balantze bateratuak Foru Ogasunaren 2007ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren ezaugarriak nabarmenenak islatzen ditu, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetua. Ibilgetuaren saldoek ez dituzte behar bezala agertzen Nafarroako Gobernuaren jabetzako ondasunak, ondokoak direla eta:

- a) Ez dituzte jasotzen mota horretako ondasun guztiak, eta ez dira aztertu, ezta kasua denean araztu ere, saldo historikoak.

- b) Inbentarioa eta kontabilitateko datuak ez daude berdinkaturik.

- Gorabeherak. Ez dira jaso Nafarroako Gober-nuko funtzionarioen pentsio-sistemek sorrarazten dituzten betebeharrak aktuariaren ondorioz dauden gorabeherak.

IV.1.3. Emaizta-kontua

Kontuko saldoa -255 milioi euroko aurrezkia edo etekina- Nafarroako Gobernuak 2007an lortu zuen mota horretako emaitzaren isla da.

IV.1.4. Oroitidazkia

2007ko ekitaldiko oroitidazkiak Nafarroako aipatu ekitaldiko kontu orokorrak interpretatu eta oro har ulertzeko behar den informazioa eskaintzen du.

Kontratazioari buruzko informazioa unitateek kontratuen erregistroari igortzen dituzten datuetan oinarrituta prestatu da; horregatik, ezin da ziurtatu informazio guztia jasotzen denik.

Jakinarazi digutenaren arabera, 2008tik aurre-ra, kontratazio-atarian dagoen informazioa erabili-ko da kontratazio-taulak prestatzeko.

IV.2. LEGEZKOTASUN PRINTZPIOA BETE-TZEA

Eginiko lanak erakusten duenez, Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen jarduera, oro har, legezketasunaren printzipioari jarraituz gauzatu da.

IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

3.901 milioi euroko hasierako aurrekontuarekin, horren barne gastu fiskalak daudela, eta 4.486 milioi euroko aurrekontu bateratuarekin, Nafarroako Gobernuak 4.294 milioi euroren gastuak exekutatatu ditu (%95,7), eta 4.295 milioi euroren diru-sarrerak (%95,7).

2006ko ekitaldiari dagokionez, gastuen bete-tzeak %16 egin du gora; aldiz, diru-sarrerak %13

handitu dira. Bi urte horietan, gastu fiskalak aurrekontuan jasota daude.

Gastuak diru-sarreraren aldean gehiago handitzearen ondorioz, aurrekontu-saldoan superabita 112 milioitik 0,6 milioira murriztu da.

Ekitaldi honetan, kontabilitate publikorako plan orokorrak jasotzen dituen egiturari eta doitzeei jarraiki aurkezten da aurrekontu-emaiza, eta horrek emaitza doitu kalkulatzeko modua ematen du. Hori lortzeko, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako betebeharrak eta finantza-desbideratzeak kontuan hartzen dira. Doitze horiek direla eta, aurrekontu-superabit doitu 287 milioi eurokoa da. (Ikus V.2 atala)

Jatorri ekonomikoari erreparatuta, gastuak eta diru-sarrerak honela banatzen dira, ehunekotan:

Gastuak	2006	2007	Diru-sarrerak	2006	2007
Transferentziak	55	55	Zuzeneko zergak*	50	52
Langileria	25	23	Zeharkako zergak*	44	41
Ondasun arruntak	9	9	Transferentziak	2	3
Inbertsioak	5	7	Tasak eta prezio publikoak	1	2
Beste batzuk	6	6	Beste batzuk	3	2
Guztira	100	100	Guztira	100	100

* 2007an zerga-onurak kontuan hartzen ez baditugu, zuzeneko eta zeharkako zergen ehunekoak 46,1 eta 45,4 dira, hurrenez hurren.

Gobernuaren gastuen aplikazioaren xede den funtzioaren ikuspegitik, halaxe banatzen dira, ehunekotan, gastuak:

Oinarrizko zerbitzu publikoak		3,03
Gizarte-babesa eta -sustapena		14,38
Pentsioak:	2,67	
Gizarte-zerbitzuak	4,52	
Etxebizitza eskuratzea	5,67	
Enpleguaren sustapena	1,50	
Ondasun publikoen ekoizpena		34,43
Osasuna	19,43	
Hezkuntza	13,04	
Kultura	1,98	
Jarduketa ekonomikoak		18,61
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	2,95	
Industria eta energia	6,06	
Azpiegiturak	6,21	
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	2,58	
Beste batzuk	0,81	
Jarduketa orokorrak:		29,55
Izaera orokorreko zerbitzuak	6,37	
Estatuarekiko hitzarmenak	16,47	
Toki korporazioentzako transferentziak	4,50	
Beste batzuk	2,21	
Guztira		100

Datu hauetatik ondoriozta daitekeen bezala, gastuaren erdia osasunerako, hezkuntzarako eta Estatuaren zametara egiten den ekarpena ordaintzeko bideratzen da.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-emaitzari 188 milioi euroko superabita edo finantzaketa-ahalmena dagokio, Nafarroako administrazio publi-

koen sektorean sarturiko entitateen multzorako kalkulaturik, SEC'95 arauaren arabera, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eginiko kalkuluen arabera; kalkulu horiek ez ditu berrikusi Nafarroako Comptos Ganberak.

Maniobra-funtsa 379 milioi eurokoa da.

Epe luzeko zorra honela banatzen da:

(euroak, milioitan)			
Zorra	Zor publikoa	Gainerako zorra	Guztira
Administrazio orokorra	550,35	30,45	580,80
Enpresa-sektorea		214,53	214,53
Guztira			795,33

Oroitidazkiko 95. orrialdean eta hurrengoetan, finantza-egoerari buruzko informazio xehatua ematen dugu.

IV.4. COMPTOS GANBERA HONEK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Nafarroako Gobernuak prestatutako oroitidazkian, Nafarroako Comptos Ganberak 2006ko ekitaldiko txostenean egindako gomendio nagusiak jasotzen dira. Gobernuak kontuan hartu ditu gomendio horiek.

- Aurrekontuko emaitza, kontabilitate publikoko plan orokor indardunak adierazten dituen egiturari eta doikuntzei jarraiki prestatua.

- Diruzaintzako gerakina kontabilitate publikoko plan orokor indardunak adierazten dituen egiturarekin eta doikuntzekin aurkezten da, eta, beraz, aurreko ekitaldian jakinarazitakoa osatu da, ekitaldian eragindako finantzaketa-desbideratzeak jasota.

- Itxitako ekitaldietako saldoen azterketa xehatua eta hartzekodunen eboluzioa jasotzen dira.

- Aurrekontu-programa bakoitzeko diru-sarreraren eta gastuen laburpena eransten da, haietako bakoitzaren oroitidazkian.

- Aurrekontua, kontabilitate nazionalaren ikuspegitik, egonkorra izateko helburua betetzeari buruzko informazioa aurkezten da euskarri digitalean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak honako honetan erabaki bezala: Aurrekontu Egonkortasun-

nerako Lege Orokorraren Testu Bateratuko 9. artikuluan; legea abenduaren 28ko 2/2007 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen. Kontuan hartu behar da informazio hau, ezinbestean, ez datorrela bat Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-betetzearekin, funtsezko hiru arrazoiengatik: finantzarioak ez diren eragiketak baino ez dira kontuan hartzen; kutxa-irizpide hertsia erabiltzen dira; eta beste erakunde batzuk sartzen dira, Foru Administrazioaz gain.

Era berean, Nafarroako Ogasun Publikoaren apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen onarpena aipatu behar da. Legea 2008ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, eta, haren bidez, ganbera honek proposatutako gomendioetako batzuei erantzun zaie; besteak beste, hauei:

a) Aplikazio-esparruaren definizio hobea eta foru-sektore publikoaren antolaketa; hori dela eta, azpimarratu behar da sozietate publikoek egiten den definizioa.

b) Aurrekontu-alderdi orokorren erregulazioa; besteak beste, haiek osatzen dituzten dokumentuak zehaztea, dokumentuen edukia eta aurrekontuetarako foru-araudiaren oinarriko kontzeptuak eta printzipioak. Horri dagokionez, aurrekontu-luzapenaren erregulazioa nabarmentzen da.

c) Urte anitzeko gastuei buruzko alderdiak gehiago zehaztea.

Indarrean jarraitzen dute Comptos Ganbera hau lehentasunez eskatzen ari den beste gomendio batzuek; XI. atalean (gomendioak) aipatzen dira.

V. 2007ko KONTU OROKORRAK OSATZEN DITUZTEN EGOERA-ORRI FINANTZARIOEI BURUZKO LABURPENA

V.1. 2007ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.

2007ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Betetakoa	Guzt. g/ %	(eurotan)
						Betetakoa/ bateratua (ehunekotan)
Langile-gastuak	986.238.688	5.703.095	991.941.783	974.073.420	22,68	98,20
Ondasun arruntetako gastuak	381.312.024	31.683.500	412.995.524	403.129.541	9,39	97,61
Gastu finantzarioak	30.505.553	2.221.302	32.726.855	32.537.072	0,76	99,42
Transferentzia arruntak	1.542.848.771	153.995.938	1.696.844.709	1.665.216.741	38,78	98,14
Inbertsio errealak	274.882.209	85.457.133	360.339.342	283.678.851	6,61	78,73
Kapital-transferentziak	664.661.446	94.094.713	758.756.159	705.211.713	16,42	92,94
Aktibo finantzarioak	20.878.856	181.072.276	201.951.132	200.199.160	4,66	99,13
Pasibo finantzarioak	7.000	30.253.765	30.260.765	30.254.765	0,70	99,98
Guztira	3.901.334.547	584.481.722	4.485.816.269	4.294.301.263	100	95,73

2007ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Betetakoa	Guzt. g/ %	(eurotan)
						Betetakoa/ bateratua (ehunekotan)
Zuzeneko zergak	1.870.963.006	182.687.035	2.053.650.041	2.211.186.762	51,48	107,67
Zeharkako zergak	1.775.500.000	0	1.775.500.000	1.760.926.978	41,00	99,18
Tasak, prezioak eta bestelako diru-sarrerak	68.065.989	2.537.589	70.603.578	100.316.616	2,33	142,08
Transferentzia arruntak	46.851.683	8.021.751	54.873.434	58.698.754	1,37	106,97
Ondarezko diru-sarrerak	58.772.097	649.757	59.421.854	60.919.672	1,42	102,52
Inbertsio errealen besterentzea	27.947.810	0	27.947.810	11.435.931	0,27	40,92
Kapital-transferentziak	30.120.232	92.748.407	122.868.639	69.078.173	1,61	56,22
Aktibo finantzarioak	23.113.730	297.837.183	320.950.913	22.386.321	0,52	6,97
Guztira	3.901.334.547	584.481.722	4.485.816.269	4.294.949.207	100,00	95,75

V.2. 2007ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA.

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitorturiko betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	4.192.049	3.074.957	1.117.092
2. Kapital-eragiketak	80.514	988.891	-908.376
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	22.386	200.199	-177.813
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta*	4.294.949	4.264.046	30.903
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia	0	30.255	-30.255
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa.			648
4. Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzaturako betebeharrak aitortuak.			+282.290
5. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			+6.301
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			-1.646
IV. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III + 4 + 5 - 6)			287.593

* Inprimatutako oroitidazkian akats mekanografiko bat dago zenbateko horietan

V.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)

AKTIBOA	2007ko ekitaldia	2006ko ekitaldia
A) IBILGETUA	2.178.141.829,19	2.086.976.629,86
III. Ibilgetu materialak	1.507.087.813,95	1.397.729.458,18
1. Lursailak eta eraikinak	971.043.729,08	905.878.515,82
2. Instalazio teknikoak eta makineria	53.714.575,77	48.650.065,11
3. Tresneria eta altzariak	277.915.306,10	247.883.285,30
4. Bestelako ibilgetua	204.414.203,00	195.317.591,95
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	671.054.015,24	689.247.171,68
1. Epe luzerako baloreen zorroa	600.197.690,82	583.686.573,18
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	140.996.692,11	126.986.667,74
3. Epe luzerako eratutako fidantza eta gordailuak	25.158,85	25.699,76
4. (Hornidurak)	-70.165.526,54	-21.451.769,00
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	1.430.985.612,55	1.173.755.174,55
I. Izakinak	12.308.815,17	10.081.904,32
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	12.308.815,17	10.081.904,32
II. Zordunak	161.076.004,42	146.226.946,53
1. Aurrekontuko zordunak	312.171.182,84	287.955.473,58
2. Aurrekontuak ez diren zordunak	71.919,48	66.746,22
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	243.515,75	114.959,14
5. Beste zordun batzuk	2.772.035,51	471.947,53
6 (Hornidurak)	-154.182.649,16	-142.382.179,94
III. Aldi baterako finantza inbertsioak	1.258.868.328,15	1.016.109.340,94
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	1.258.865.161,66	1.016.109.340,94
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	3.166,49	0,00
IV. Diruzaintza	-1.267.535,19	1.336.982,76
Guztira, orokorrean (A+C)	3.609.127.441,74	3.260.731.804,41

PASIBOA	2007ko ekitaldia	2006ko ekitaldia
A) FUNTS BEREKIAK	1.976.572.560,81	1.721.723.222,89
I. Ondarea	1.376.840.326,17	1.171.345.032,30
1. Ondarea	1.376.840.326,17	1.171.345.032,30
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	344.882.896,72	205.495.293,87
1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	344.882.896,72	205.495.293,87
IV. Ekitaldiko emaitzak	254.849.337,92	344.882.896,72
C) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	580.803.517,49	785.924.872,20
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	550.351.815,66	610.453.026,10
1. Obligazioak eta bonoak	550.351.815,66	610.453.026,10
II. Epe luzeko bestelako zorrak	25.451.641,20	25.471.785,47
2. Bestelako zorrak	24.838.593,86	24.838.593,86
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	613.047,34	633.191,61
V. Akzioen gaineko ordainketa eskatu gabeak, egiteko daudenak	5.000.060,63	150.000.060,63
D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.051.751.363,44	753.083.709,32
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	60.101.210,44	30.050.605,22
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	60.101.210,44	30.050.605,22
III. Hartzekodunak	991.650.153,00	723.033.104,10
1. Aurrekontuko hartzekodunak	977.891.276,10	707.435.690,60
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	6.053.175,37	9.198.700,35
4. Administrazio publikoak	3.590.799,56	2.325.480,00
5. Beste hartzekodunak	1.984.591,21	1.468.739,56
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.130.310,76	2.604.493,59
Guztira, orokorrean (A+C+D)	3.609.127.441,74	3.260.731.804,41

V.4 EMAITZEN KONTUA 2007ko ABENDUAREN 31n

	(eurotan)	
ZOR	2007ko ekitaldia	2006ko ekitaldia
A) GASTUAK		
2. Hornidurak	166.072.752,13	158.080.260,82
b) Ekitaldiko kontsumoak	166.072.652,13	153.543.395,00
c) Kanpoko beste gastu batzuk	100,00	4.536.865,82
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.301.211.910,06	1.129.778.398,20
a) Langile-gastuak.	925.087.567,28	870.622.101,77
a.1) Soldatak eta ordainsariak	796.737.853,56	737.880.551,33
a.2) Gizarte-zamak	128.349.713,72	132.741.550,44
b) Gizarte-prestazioak	49.586.767,66	46.022.406,29
d) Trafiko horniduretako aldaketak	11.800.648,49	2.385.888,47
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	11.800.648,49	2.385.888,47
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	233.486.027,75	163.560.003,00
e.1) Kanpoko zerbitzuak	233.461.168,05	163.553.617,98
e.2) Tributua	24.859,70	6.385,02
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	32.537.141,34	36.914.239,89
f.1) Zorrek direla eta	32.537.141,34	36.914.239,89
g) Finantza-inbertsioen probisioen aldaketa	48.713.757,54	10.273.758,78
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	2.374.845.529,09	2.020.713.215,31
a) Transferentzia arruntak	1.665.264.213,56	1.409.073.694,46
c) Kapital-transferentziak *	709.581.315,53	611.639.520,85
5. Ezohiko galerak eta gastuak	232.727.634,48	138.847.504,74
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0,00	0,00
c) Aparteko gastuak	163.696.349,58	117.869.533,40
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	69.031.284,90	20.977.971,34
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)	254.849.337,92	344.882.896,72
Zorrek, guztira	4.329.707.163,68	3.792.302.275,79

*Hauek biltzen ditu: aurrekontu-betetzearen zenbatekoa eta zenbait toki erakunderi zuhaitzak landatzeko emandako maileguak barkatzeari dagokiona.

HARTZEKO	2007ko ekitaldia	2006ko ekitaldia
B) DIRU-SARRERAK		
1. Ohiko kudeaketari dagozkionak	4.005.304.056,26	3.591.291.185,58
a) Zerga-sarrerak	3.989.109.490,39	3.584.578.554,73
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.325.707.846,50	1.158.846.237,05
a.2) Sozietateen gaineko zerga	777.679.423,85	648.552.114,60
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	47.931.516,63	30.803.378,83
a.4) Ondarearen gaineko zerga	59.867.975,09	55.287.057,15
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDren gaineko zerga.	133.030.248,87	158.587.020,68
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.165.445.740,86	1.078.198.162,77
a.11) Zerga bereziak	462.450.988,80	435.844.161,79
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	16.995.749,79	18.460.421,86
b) Kotizazio sozialak	3.866.761,10	3.714.582,10
c) Zerbitzuak ematea.	12.327.804,77	2.998.048,75
c.1) Zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak	12.327.804,77	2.998.048,75
2. Ohiko kudeaketako beste sarrera batzuk	128.045.027,91	102.975.491,36
a) Itzultzeak	9.927.226,86	8.556.221,39
c) Salmentak eta zerbitzuak ematea.	9.607.719,29	13.641.743,34
c)Kudeaketako beste sarrera batzuk	42.313.401,57	41.198.828,18
c.1) Sarrera osagarriak eta ohiko kudeaketako beste batzuk	42.313.401,57	41.198.828,18
d) Kapitaleko parte-hartzeengatiko diru-sarrerak	11.682.333,40	11.924.012,81
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	54.514.346,79	27.654.685,64
f.1) Beste interes batzuk	54.514.346,79	27.635.020,25
f.2) Inbertsio finantzarioetako mozkinak	0,00	19.665,39
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	127.572.767,03	74.733.376,82
a) Transferentzia arruntak	58.698.754,24	42.262.478,30
b) Kapital-transferentziak	68.874.012,79	32.470.898,52
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	68.785.312,48	23.302.222,03
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	2.266.854,76	3.265.694,75
c) Jadanekeo ekitaldiko ezohiko sarrerak	3.226,45	0,00
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	66.515.231,27	20.036.527,28
Saldo zorduna (desaurrezkia)		
Hartzekoa, guztira	4.329.707.163,68	3.792.302.275,79

V.5. DIRUZAINZA-GERAKINA, 2007ko ABENDUAREN 31n.

(eurotan)

Kobratzeko dauden eskubideak		131.123.285,31
Diru-sarrerren aurrekontua: jadaneko ekitaldia	287.154.897,14	
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-160.761.029,25	
Diru-sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	5.838.136,55	
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-3.828.257,22	
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.719.538,10	
Ordaintzeko dauden betebeharrak.		1.051.733.052,13
Gastuen aurrekontua: jadaneko ekitaldia	652.537.096,84	
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	288.552.474,03	
Aurrekontuz kanpoko gastuak	50.542.270,82	
Epe laburreko obligazioak eta bonoak	60.101.210,44	
Funts likidoak		1.252.511.998,46
Funts likidoak, guztira	1.257.597.626,47	
Fondo Carbono kontua, guztira	-5.085.628,01	
Diruzaintzako gerakina, guztira		331.902.231,64
Toki ogasunen funtsa		17.065.308,95
Finantzaketaren desbideraketa positiboak		1.645.967,35
Izapidetzen ari diren herentziak		30.562,00
Diruzaintzako atxikitako gerakina		18.741.838,30
Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina		313.160.393,35

VI. HITZARMEN EKONOMIKOA

Nafarroak Estatuko zama orokorretarako egiten duen ekarpena bosturtekoen arabera kalkulatu da. Oinarrizko urterako, bi administrazioek hala erabakita, hasierako ekarpena kalkulatu bideratuko duen egozpen-indizea ezartzen da, eta bosturtekoaren gainerako urteetarako zenbateko hori gaurkotuko da, bi tributu-administrazioen diru-bilketaren arabera.

2007ko urrian sinatu zen hitzarmenaren gaurkotzea 2005-2009 urteetarako. Aurreko urteetako ekarpenen kontzeptuan egin beharreko doikuntzak

2007an sortu ziren eta bi ordainketatan pagatuko dira: bata 2007an eta bestea 2008an.

Eguneratze horren arabera, oinarriko urtearen ekarpena 553,5 milioi eurokoa da.

Bosturtekoari dagozkion indizeak eta parametroak eguneratzean izandako atzerapena dela eta, 2007an (eta 2008an) aurreko urteetan erregularizatu gabeko saldoak erregularizatu dira, eta, horregatik, hazkunde nabarmenak gertatu dira, aurreko ekitaldiekin alderatuta.

Ondoren, hitzarmen ekonomikoaren ondoriozko gastu eta diru-sarreraren datuak aurkezten ditugu, aurreko ekitaldietakoekin alderatuta.

(euroak, milakotan)

Kontzeptua	2005		2006		2007	
	Diru-sarrerak	Gastuak	Diru-sarrerak	Gastuak	Diru-sarrerak	Gastuak
Est. zer. partaidetza	48		86		95	
BEZaren doiketa	219.075		263.953		278.734	
Hidrokarburoen doiketa	(38.171)		(39.976)		(31.839)	
Tabakoen doiketa	27.960		31.864		16.437	
Alkoholaren doiketa	(52.982)		(63.092)		(44.571)	
Garagardoaren doiketa	(1.008)		(815)		(1.095)	
Zama orok. ekarpena		524.867		583.966		707.259
Guztira	154.922	524.867	192.020	583.966	217.761	707.259

VII. AURREKONTU-KUDEAKETARI LOTUTAKO ZENBAIT GAIRI BURUZKO IRUZKINAK

VII.1. LANGILE-GASTUEI BURUZ

- 2006ko ekitaldiarekin alderatuta, lantaldean beste 431 pertsona sartu dira; 331 pertsona oinarriko plazetan, eta 100 oinarrikoak ez direnetan.

431 plaza horiek honela banatzen dira: 258 Osasunbidean; 118 Hezkuntza Departamentuan; eta 55 administrazio nagusian.

- Kontabilizazioa zuzena da, baina irakaskuntzako zuzendaritza-karguei dagozkien osagarriak ez dira jasotzen plantilla organikoan; izan ere, osagarri horiek indarreko arautegian ezarrita daude, eta, 2007ko urtarrilaren 1ean, 1.300 pertsona inguruk jasotzen zituzten.

VII.2. ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEAZ

- II. kapitulan, argi ikusten da gastua aurreko urtekoa baino ehuneko 20 handiagoa izan zela;

hau da, 67 milioi gehiago gastatu ziren. Zenbateko horretatik, 27 milioi Santiago Bideko autobia zerbitzuan jartzeagatik ordaindutako kanonari dagozkio. (Nafarroako Comptos Ganberak bere irizpena eman zuen eraikuntza horretaz 2007-09-19an).

Zenbateko hori kontuan ez hartzeraz, hazkundea ehuneko 12 ingurukoa litzateke.

- Santiago Bideko autobien kanona hilero ordaintzen da ibilgailuez egindako kalkuluen baten arabera, eta urtearen amaieran berregokitzen da, autobiatik igaro diren ibilgailuen benetako kopuruaren arabera.

Ordaindutako 27,5 milioiak egindako kalkuluei dagozkie. Geroago, 2008an, 6,4 milioi gehiago ordaindu ziren; hau da, hasieran pentsatutakoaren ehuneko 23.

- Osasun Departamentuak egiten du II. kapituluko gastuaren erdia baino gehiago (ondasunen eta zerbitzuen erosketak).

- Argi ikusi da lanak amaitu ondoren mandatu bat egin zaiola ICANi, eta geroko ekitaldietarako

hartutako gastu-konpromisoa mandatuaren aurrekontua baino handiagoa dela, mandatuak ez baitzuen aurreikusten urte guztietako gastua. Era berean, agindutako lan guztiak kanpoko enprekin azpikontratatzeko direla.

- Kirol-babesari buruzko kontratuetan beti ez da jasotzen ikerketak edo azterketak egin direnik, administrazioak babestutako erakundetik zer ordain jaso duen ebaluatzeko.

VII.3. TRANSFERENTZIEI BURUZ

- Ikusi da dirulaguntza arrunt izendunen kudeaketa ez dela homogenea departamentu guztietan, eta beti ez direla baldintza berak egiaztatzen, ez eta modu berean ere.

- Itoitz Fundazioaren kasuan, ez dugu transferentzia arruntan ordainketa arautzen duen inolako oinarriren berri.

- Burutu gabe dago CENi emandako dirulaguntzaren azken likidazioa, prestakuntza-programetarako hitzarmenari dagokiona, hain zuzen ere, hitzarmenak eskatzen zituen oroitidazki tekniko eta ekonomikoak epearen barruan aurkeztu baziren ere.

- Administrazioan ez dago irizpide homogeenorik BEZari buruz, diruz lagundutako gastuak justifikatzeko orduan.

VII.4. BESTE BATZUK

- Inbertsio errealak egiten direnean, beti ez dira idatziz jasotzen epe-handitzeak.

- Aldeak izan dira enpresen partaidetzak kontabilizatzerakoan; izan ere, urtearen amaieran eginitako zenbait kapital handitze Gobernuaren kontuetan erregistratuta daude, ez dira inskribatu ordea erregistroan, eta, hain zuzen, horixe da enpresetan kontabilizatzen diren unea.

- Kontuetan aurkezten den informazioan tratamendua desberdina da, aztertutako aurrekontu-programen jarduerari dagokionez. Horrenbestez, esan dezakegu ez dagoela irizpide zehatzik oroitidazkiaren edukiari eta aurkezpenari buruz, ez eta aurrekontuetan aurkeztutako informazioa egokitzeari buruzkorik ere, eta horrek ez du bermatzen oroitidazkian emandako informazioak lotura izatea aurrekontuetan adierazitako egoera, helburu eta ekintza, adierazle edo aurreikuspenekin.

Hala ere, departamentu batzuek aurkeztutako informazioa azpimarratu behar dugu, eta egindako jarduera laburtzen duen informazioa dagoela aztertutako programa gehienetan; baina informazio hori ez dago aurrekontuetan jasotako helburuei eta adierazleei lotuta.

- 2004-2007 aldirako, gastuen eta diru-sarrearen eboluzioa aurkezten da tauletan, kapitulu ekonomikoen arabera sailkatuta.

(euroak, milioitan)

Kapitulu ekonomikoa	2004	2005	2006	2007	07/06 aldaketa, ehunekotan	Urteko batez besteko metatua
Langileria-gastuak	803	857	913	974	6,70	6,66
Ondasun arruntetako gastuak	251	282	336	403	20,08	17,07
Gastu finantzarioak	48	47	37	33	-11,86	-12,12
Transferentzia arruntak*	1.207	1.315	1.409	1.665	18,16	11,31
Inbertsio errealak	208	225	200	284	41,96	10,98
Kapital-transferentziak**	272	498	612	705	15,30	37,44
Aktibo finantzarioak	19	86	192	200	3,94	117,89
Pasibo finantzarioak	0	0	1	30	3.372,61	
Guztira	2.808	3.310	3.700	4.294	16,07	15,21
*Zerga-gastuak		23	19	82		
**Zerga-gastuak		199	263	341		

Zerga-gastuen eragina kentzen badugu, 2004-2007 aldian, gastuen batez besteko hazkunde metatua ehuneko 11,29koa da.

(euroak, milioitan)

Kapitulu ekonomikoa	2004	2005	2006	2007	07/06 aldaketa, ehunekotan	Urteko batez besteko metatua
Zuzeneko zergak*	1.152	1.540	1.893	2.211	16,78	24,27
Zeharkako zergak	1.368	1.562	1.673	1.761	5,28	8,79
Tasak, prezioak eta bestelako diru-sarrerak	72	73	88	100	14,40	11,58
Transferentzia arruntak	33	44	42	59	38,83	21,52
Ondarezko diru-sarrerak	18	79	40	61	50,63	49,09
Inbertsio errealen besterentzea	12	15	17	12	-32,96	-1,45
Kapital-transferentziak	40	45	33	69	112,74	19,7
Aktibo finantzarioak	29	26	25	22	-11,35	-7,97
Pasibo finantzarioak	0	0	0	0		
Guztira	2.724	3.384	3.811	4.295	12,69	16,39
Zerga-onurak.		222	282	423		

Zerga-onuren eragina kentzen badugu, 2004-2007 aldian, diru-sarreraren batez besteko hazkunde metatua ehuneko 12,63 da.

VIII. ENPRESEN SEKTORE PUBLIKOA

Nafarroako Gobernuak parte-hartze gehiengoduna dauka 32 enpresatan, eta ez da inolako aldatarik gertatu aurreko ekitalditik hona.

Enpresen sektore publikoak honako datu hauek agertzen ditu:

	euroak, milioitan (enpleguak izan ezik)	
	2006	2007
Diru-sarrerak	332	361
Gastuak	309	346
Emaizta	8	12
Ondarearen garbia	525	697
Zorpetzea e/l	328	215
Maniobra-funtsa	378	264
Enplegatu-kopurua	1.038	1.092
Jasotako dirulaguntzak	24	27

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, alderdi azpimarragarrienak hauek dira: enplegatuen kopurua ehuneko bost handitu da, eta orain 1.092 pertsona dira; eta emaitza ere handiagoa da, zortzi milioi eurotik hamabi milioi eurora igo baita.

Etekin handienak enpresa hauek dituzte: Nasuinsak, 42,9 milioi; Vinsak, 11,6 milioi; eta Tracasak, 3,3 milioi.

Galera handienak hauek: SPRINek, 46,5 milioi; Baluartek, 4,5 milioi; eta Nafincok, 4,3 milioi.

Nasuinsaren etekinak, nagusiki, garai bateko lurren jabeek egin eta Auzitegi Nagusiak onartu ez zuen erreklamazio batengatik zegoen hornidura erregulatzearen ondorioz gertatu dira.

SPRINen galerak enpresa horrek "Nafarroako komunikazio-ardatz estrategikoak azkartzeko plana" finantzatzearen ondorio dira; izan ere, Nafarroako Gobernuak, aurretik, horretarako kapital-gehikuntzak egin zituen SPRINen. Operazio hori Nafarroako Comptos Ganberak iruzkindu zuen 2006. urteari buruzko txostenean.

Enpresen maniobra-funts orokorra (aktibo zirkulatzaila ken pasibo zirkulatzaila) 114 milioi jaitsi da, eta orain 264 milioi eurokoa da.

2007ko ekitaldiko auditoria-txostenetatik, ondokoa ondoriozta daiteke:

- Hogeita lau enpresatan iritzia aldekoa da.
- Zazpi enpresatan iritzia aldekoa da, baina salbuespen batzuekin.

- Potasas de Subiza enpresari dagokionez, auditoreak uko egin dio iritzia emateari; izan ere, enpresa likidazio-egoeran dago eta ezinezkoa da zehaztea likidazio-hitzarmen horiek sozietate horren finantza- eta ondare-egoeran izanen duten eragina.

Salbuespen horien artean, azpimarragarriak dira enpresek dela hirugarrenen erreklamazioen ondorioz, dela partaidetutako enpresen egoeraren ondorioz dituzten arriskuekin zerikusia dutenak.

Oroitidazkiaren 105. orrialdean eta hurrengoetan enpresen sektoreari buruzko informazio laburra agertzen da, eta Nafarroako Gobernuaren web gunean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren orriko "Ekonomia eta aurrekontuak" atalean (www.navarra.es), berriz, enpresa guztien kontuak eta auditoriak jasotzen dira.

Nafarroako Gobernuak gutxiengo partaidetza dauka ondoko enpresetan: Canal de Navarra, Opposa, Mercalruña, Convención Bureau S.A., Sonagar eta Autopistas de Navarra.

Nafarroako Gobernuaren Oroitidazkiak geroagoko gertaera bat jasotzen du: SODENAKo Akziodunen Batzar Nagusiak, 2008ko martxoaren 12an, kapitala 3.279.657 eurotan murriztea erabaki zuen, Nafarroako Kutxaren Enpresa Talde Korporatiboarenak ziren 54.750 akzio amortizatuz, kapital-murrizketa horren helburua ekarpenak akziodun horri itzultzea zela. Itzultze hori Iberdrola, SAREN akzioak emanez gauzatu zen, eta Nafarroako Kutxak haiei lotutako zorra bere egin zuen.

2006ko ekitaldiari buruzko txostenean, enpresa publikoen helburuak —batzuetan berberak— aztertu ziren, bai eta enpresa-sarearen osaera ere, eta horri helduko diogu.

Kasu honetan, bi kontu azpimarratu nahi ditugu:

a) Enpresa batzuetan, oso handia da Nafarroako Gobernuaren zeharkako partaidetza, baina ez dira sozietate publikotzat hartzen.

Horren adibide dira, besteak beste, Deltor Green –Nafincok ehuneko 50eko partaidetza du— eta Echauri Forestal –Nafincoren partaidetza ehuneko 100ekoa da—. Enpresa horietako lehendabizikoaren bidez, halaber, Gobernuak F.I. Reforestaciones, SLren ehuneko 50 du.

b) Enpresa publikoei tratamendu desberdina ematen zaie Ogasunari eta Ondareari buruzko legeetan. Ondare Legearen arabera, adibidez, publikoak enpresa jakin batzuk baino ez dira, hain zuzen ere, “hartzen duten forma edozein izanda ere, Nafarroako Gobernuak sortu edo onartutako enpresak, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioa bada haien kapital sozial osoaren jabe zuzena” (103.b) art.).

Ogasun Legearen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikotzat jotzen dira “Nafarroako Gobernuak sortu eta Foru Komunitateko Administrazioaren nahiz haren erakunde publikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengoa osatzen badu” (2.f) art).

Bi legeetan egiten den enpresa publikoen desberdintze horrek disfunczioak eragiten ditu, eta nahasgarria da.

Hala, adibidez, kontuetan Nafinco sozietate publiko gisa agertzen da (Ogasun Legea), eta Gobernuak haren akzio guztien jabea da, batena izan ezik, Gedesa-rena baita, eta azken hori, oso osorik, Gobernuarena da. Hala ere, akzio horrenatik, Ondareari buruzko Foru Legearen ikuspuntutik, Nafinco ez da enpresa publikotzat hartzen.

IX. ZERGA-GASTUEN AZTERKETA

Zerga-gastuei buruzko definizio bat egitekotan, esan daiteke tributua berezko egituratik desbideratzen diren salbuespen eta hobari, murrizketa eta zerga-arinketak direla, zeinak errenta edo jardura jakin batzuen aldeko bereizkeria bat egiten duten, helburu ekonomiko edo sozial batzuk lortze aldera.

Hau da, teorikoki lor zitzakeenen aldean Ogasunak lortzen dituen diru-sarrera txikiagoei dago; horrenbestez, zerga-gastu edo —onurei buruz hitz egin daiteke, ikuspuntuaren arabera.

Arau indardunen arabera, gastu- edo zerga-onurei buruzko aurrekontu bat aurkeztu behar da aurrekontuen oroitidazkiarekin batera.

2005eko kontu orokorreari buruzko txostenean adierazitako moduan, 2005eko Aurrekontuen Foru Legeak Ogasunari buruzko Legea aldatu zuen, zenbait zerga-gastu aurrekontuko gastuen edo diru-sarreraren kontusailtzat kontabilizatu ahal izateko. 2006. eta 2007. urteetan jarraitu egin da 2005ean hasitako jarduerarekin; hori dela eta, ekitaldi horri buruzko txostenean esandakoa berresten dugu, eta zerga-gastuen kontabilizazioarekin zerikusia duten datuak aurkeztera mugatu gara.

Sozietateen gaineko zergari buruzko datuei dagokienez, aurkeztutako aitorten guztiak berriki ondoren haietako zerga-gastuen kenkariei dagozkien laukiak batuz egin da kalkulua.

PFEZaren kasuan, kalkulua simulazio bidez egiten da, aitorten guztiak kontuan hartuta, papelean aurkeztutakoak izan ezik. Horien kasuan, estimazio bidezko proiektio bat egiten da, kuota-tartean arabera.

2007ko ekitaldian, zerga-onuren kontusail berriak hartu dira aurrekontuetako gastutzat eta diru-sarreratzat, eta, horregatik, aurreko urtearen aldean, handitu egin da betetze-maila.

2005 eta 2007 artean kontabilizatutako zerga-gastuen eboluzioa taula honetan agertzen da:

Kontzeptua	2005		2006		2007	
	Kontabilizaturiko zerga-gastuak	Aldea ehunekotan, 06/05	Kontabilizaturiko zerga-gastuak	Aldea, ehunekotan, 07/06	Kontabilizaturiko zerga-gastuak	Aldea ehunekotan, 07/05
Etxebizitzen alokairua	3.815.675	22	4.669.042	23	5.737.797	50
Etxebizitzako inbertsioa	116.159.322	9	126.343.621	10	138.936.025	20
Enplegua sortzea	14.749.229	-15	12.547.108	20	15.086.121	2
Inbertsioa	67.233.946	68	112.864.910	65	186.745.845	178
Prever Planean egindako inbertsioa					1.058.885	
I+G+Bko inbertsioa	15.673.173	49	23.413.807	-36	14.900.371	-5
Alargun-pentsioak	4.114.860	-57	1.767.537	420	9.191.340	123
Zaintzaileak					482.239	
Aurreikuspen-sistemak					51.286.387	
Kultur ondasunak	5.882	-53	2.746	24	3.398	-42
Guztira	221.752.087	27	281.608.771	50	423.428.408	91

Ondoren, egindako aurrekontuaren eta haren betetze-mailaren arteko aldea ikus daiteke:

Aurrekontuko kontusailak eta zerga-onurak 2007an			
	Aurrekontua	Betetzea	Betetzearen %
Ohiko etxebizitza alokatzea	4.963.000	5.737.797	116
Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioa	133.571.000	138.936.025	104
I+G+Bko inbertsioa	17.871.000	14.900.371	83
Enplegua sortzea	16.844.000	15.086.121	90
Enpresen inbertsioak	145.503.000	186.745.845	128
Prever Planean egindako inbertsioa	557.000	1.058.885	190
Alargun-pentsioak	10.611.000	9.191.340	87
Zaintzaileen kotizazioak	471.000	482.239	102
Gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak	51.361.000	51.286.387	100
Inbertsioak kultur intereseko ondasunetan	3.000	3.398	116
Guztira	381.755.000	423.428.408	111

Prever Planari dagozkion kontusailak, aurreikuspen-sistemetak ekarpenetatik eratorritakoak eta pertsona zaintzaileen ondorioz sortutakoak 2007ko ekitaldian gehitutako aurrekontu-gastu eta -sarrerak dira.

Inbertsio-gastuak handitu egin dira, bereziki, energia berriztagarrien sektorean egindakoengatik; alargun-gastuak, berriz, arautegi-aldaketen ondorioz handitu dira. I+G+Brako inbertsioak eragindakoek nabarmen egin zuten gora 2006an, eta

aplika daitekeen kenkaria ondoriozko kuotaren arabera da.

Zerga-onuren aurrekontua ondoriozko betetzearekin aztertzen bada, ikus daiteke PFEZetik datozenak zehatzago kalkulatzeko direla sozietateen gaineko zergatik datozenak baino.

Oro har, kontabilizaturiko zerga-onuren betetzea aurreikuspena baino ehuneko 11 handiagoa izan da; zuzeneko zergen betetzea, berriz, zerga-onurak kontuan hartu gabe, hasierako aurreikuspena baino ehuneko 20 handiagoa izan da.

X. AURREKONTUETAKO KONTUSAIL HAN- DIENEN ETA TXIKIENEN BETETZEA

2007ko aurrekontuan, 4.294 milioi euroko bete-
tzea izan da, 4.431 kontusailetan banatuta, behe-
an ikusten den bezala:

(milioikotan)

Tarteak eurotan	Kontu-sailen kopurua	Betebeharren zenbatekoa	Kontu-sailen % metatua	Zenbatekoaren % metatua
0	474	0	% 11	% 0
1 – 180.000	2.715	108	% 61	% 3
180.0001 – 600.000	639	217	% 14	% 5
600.001 – 6.000.000	510	857	% 12	% 20
6.000.001 – 60.000.000	86	1.419	% 2	% 33
60.000.000 baino gehiago	7	1.693	% 0	% 39
Guztira	4.431	4.294	% 100	% 100

Aurrekontuetako 48 kontusailetan, gauzatutako
gastuen zenbatekoa 12 milioi eurotik gorakoa da;
guztira 2.710 milioi euro dira, guztira gauzatutako-
aren ehuneko 63. Kapitulu ekonomikoen arabera
saiklatuta, kontusail horiek honela bil ditzakegu:

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Kontzeptua	Zenbatekoa	Kapitulua, guztira
Langileria	Ordainsari finkoak	444	
	Pentsioak:	49	493
Erosketak	Farmakoak eta hitzarmenak	52	
	A-12 autobideko bidesaria	28	80
Finantzarioak	Zorren interesak	30	30
Transferentzia arruntak	Estatuarentzako ekarpena	707	
	Farmakoak	152	
	Udalentzako funtsa	145	
	Hezkuntza pribaturako dirulaguntza	82	
	Gizarte-ongizatea	69	
	Zerga-gastuak	66	
	Unibertsitatea	54	
	Iruña, hiriburutza	18	
	Audenasa	14	1.307
Inbertsioak	Bide-sarea	70	70
Kapital-transferentziak	Zerga-gastuak: Inbertsioa	202	
	Zerga-gastuak: Etxebizitza	139	
	Inbertsioa eta enplegua	76	
	Etxebizitza	59	
	Udalentzako funtsa	25	501
Aktibo finantzarioak	Akzioen erosketa	181	
	Udal-montepioa	18	199
Pasibo finantzarioak	Zorren amortizazioa	30	30
Guztira		2.710	2.710

Zenbateko horiek ez dira kontzeptu horiei dagozkien guztiak, baizik eta 12 milioi eurotik gorako betetzea duten kontusailetan jasotakoak baino ez. Eranskinean jasotzen dira 12 milioi eurotik gorako betetzea izan duten kontusail guztiak.

Azpmarratu behar da zenbateko horretatik 407 milioi euro zerga-gastuei dagozkiela.

Kapitulua	Hasierakoa	Aldaketak	Bateratua
Langileria	18.508.157	-16.942.211	1.565.945
Erosketak	16.914.020	-16.567.103	346.916
Finantzarioak	3.001		3.001
Transferentzia arruntak	3.662.090	-1.682.834	1.979.256
Inbertsioak	4.215.876	-2.169.314	2.046.562
Kapital-transf.	7.482.254	-2.217.768	5.264.485
Aktiboak	102		102
Pasiboak	1.000		1.000
Guztira	50.786.500	-39.579.231	11.207.268

Datu horietatik ondorioztatzen denez, kontusail horietako gehienak aurrekontu-aldaketak egiteko erabili dira, eta, horrenbestez, hasierako aurrekontua 51 milioi eurokoa izan ondoren, bateratua 11 milioi eurokoa da.

100.000 eurotik gorako aurrekontu bateratua duten 20 kontusailen artean, guztira, 9.581.060 euroko zenbatekoa osatzen dute, eta hori bete gabeko aurrekontu bateratuaren ehuneko 85 da.

Adierazgarria da bete ez den 5.670.000 euroko zenbateko bat Parlamentuak legebiltzarraren eztabaidan gehitutako kontusailetatik bederatziri dagozkiela; hauek dira kontusail horiek:

Lerin-Carcar linea elektrikoa.

Nafarroako hiri-hondakinak tratatzeko partzuergoa. Frakzio organikoa.

Interes orokorreko sarea: Iruña-Frantzia Danxtarinetik.

Valtierrako egoitzarako dirulaguntza.

Lekaroz Fundazioa.

Doneztebeko egoitzarako dirulaguntza.

Alloko eta Sartagudako laguntza-zentroetako obretarako dirulaguntza.

Ebroko laborategiarentzako dirulaguntza.

CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko.

XI. GOMENDIO OROKORRAK

Eginiko lanaren ondoriozko gomendio nagusiak azaldu aurretik —besteak beste, beste ekitaldi

batzuetan eginak izanik ere oraindik bete gabe daudenak— gogorarazi behar dugu 2007an onetsi zirela Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, zeina 2008ko urtarrilean indarrean jarri baitzen, eta Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea, zeina maiatzean jarri baitzen indarrean.

Gomendio horiek berez dakarte kudeaketa hobetzeko neurriak aplikatzea eta arlo horri buruzko araudia betetzea.

Ondoren aurkeztuko ditugun gomendioak dira ezartzeko premia handiena dutenak, eta lehentasunez aplikatu beharko lirateke:

- *Foru Komunitateko Administrazioaren kontabilitate-plan publikoa zehaztea, onestea eta ezartztea, edo, halakorik ezean, kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra aplikatzea, halako moduz non zehaztuko diren erabili beharreko kontuak eta haien funtzionamendua, eta aurkeztu beharreko egoera-orriak, eta horiek guztiak, ahal den neurrian, ezarritako programa informatikoetatik automatikoki eskuratu ahal izatea. Irizpideak aldatuz gero, kontuetan azaldu beharko dira.*

- *Hirugarrenen kontabilitate osagarria eta kontabilitate orokorra koordinatzea eta integratzea, bereziki datuen eta informazioen ustiapenari eta banakatzeari dagokienez.*

- *Enpresen eta fundazioen sektorea arrazionalizatzeko aukera aztertzea, eta, ahal den neurrian, enpresa publikoek beste enpresa batzuetan parte-hartze gehiengoduna izan dezaten nagusi izan behar duten irizpideak ezartzea. Enpresen eta fundazioen sektorea arrazionalizatzeko aukera*

aztertzea, eta, ahal den neurrian, enpresa publikoek beste enpresa batzuetan parte-hartze gehien-goduna izan dezaten nagusi izan behar duten irizpideak ezartzea.

XI.1. AURREKONTUAK ETA KONTU OROKORRAK

- Ekitaldiko oroitidazkiari eranstea ekitaldi bakoitzean betetako jarduera hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarri diren datu eta informazio guztiak. Horrenbestez, hau egin behar-ko litzateke:

a) Finantzaketa-desbideratzeen tratamendua osatzea –aurten gehitu dira lehenengo aldiz, garrantzitsuenak kontuan hartuta–, diruzaintzako gerakinaren egoera-orria egiteko, bai eta dauden guztiak jasotzea ere.

b) Aurrekontuen likidazioari buruzko egoera-orrietan kobrantzei eta ordainketei buruzko informazioa jasotzea.

c) Foru-sektore publikoari buruzko finantza egoera orokorra erakustea, administrazioa, erakunde eta enpresa publikoak eta bestelako erakundeak ere barnean hartuz.

d) Urte anitzeko herri-lan handien egoera erakustea.

e) Hurrengo urteetarako gastuen konpromisoei buruzko agiriri informazioa gehitzea eta kontuan hartzea kreditu-erreserbei eta bestelako gastu-konpromisoei buruzko informazioa, hala nola zorrari, itzaleko bidesariari eta abarrei buruzkoa, eta, kasua bada, agiri horren edukia egokitzea edota aldatzea.

f) Zergen aitortpen gehituak osatzea.

g) Hitzarmen Ekonomikoak sortutako fluxuen laburpena aurkeztea.

h) Zerga-gastuen aurreikuspenen jarraipena gehitzea.

- Epaiaren zain dauden auzien ondoriozko gertakariak aztertzea.

- Aurrekontuetako eta oroitidazkiko aurrekontu-programen lanketa eta aurkezpena homogeneizatzeko, nagusiki ondoko alderdietan: aurkeztu beharreko informazioa, helburuen eta adierazleen definizioa eta kalitatea, betetze-mailaren jarraipena eta desbideratzeen azterketa. Adierazi digutenaren arabera, 2009ko aurrekonturako hasi dira alderdi horien gainean lan egiten.

XI.2. KONTABILITATEAREN KUDEAKETA

- Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko den kontabilitate-plana definitzea, halako moduan non kontuetan aurkezten diren egoera-orriak horren arabera izan diren eta, ahal den neurrian, aplikazio informatikotik zuzenean sortuko diren.

- Kontabilitate-sistema osatzea, halako moduan non oinarrizko zerbitzu publikoak ematearen kostua lor daitekeen. Hala ere, esan behar da ere helburu hori ez dagoela aurreikusita kontu orokorren prestaketan.

- Foru-funtzionarioen eskubide pasiboen sistemak dakartzen betebehar aktuarialak neurtu eta finantzen egoera-orrietan erregistratzea.

XI.3. KONTU-HARTZAILTZA ETA BARNE-KONTROLA

- Kontu-hartzaitzako langile-plantillaren egonkortasuna lortzea.

XI.4. AURREKONTUAREN BETETZEA

- Hezkuntza-arloan ordaintzen diren osagarri guztiak plantillan jasotzea.

- Oroitidazkia osatzea, plantillako plazak ez ezik, egindako kontratazioetakoak eta horietarako arrazoiak ere aurkeztuz.

- Mandatuak lanak egin baino lehen onestea, eta kontuan hartzea geroko gastuetarako konpromisoak zertzen badira, mandatuaren aurrekontuan jasota egon behar dutela.

- Kirola babesteko kontratuetan lortutako kontrapartidak behar bezala justifikatzea.

- Ahal den neurrian, hitzarmenen edukia homogeneizatzeko, eta gauza bera egitea dirulaguntza izendunetako baldintza eta justifikazioekin.

- Dirulaguntzen justifikazioan, onuradunak jasandako BEZari buruz irizpide bakarra erabiltzea.

- Inbertsioetan, epe-handitzeak idatziz jasotzea, edo, bestela, haiek hartzean jasotzea.

- Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea gaurkotzeko komenigarritasuna eta aukera aztertzea, jatorrizko garapenean jasotako egoera berriak agertzen direnean; izan ere, laurogeiko hamarkadako da. Komenigarria da erraztasunak ematea hura egungo kontabilitate-sistemarekin koordinatzeko. Kontsulten sistema modernizatzeko ere abantailak izanen litzuzke.

- *Enpresetako partaidetzarekin zerikusia duten egoera-orri edo agiri guztien erregistroak homogeneizatzeko, halako modutan non guztietan zenbateko berak agertzen baitiren urtealdi batean onetsi eta hurrengoan gauzatzen diren eragiketen kasuan (kapital-zabaltzeak).*

- *Administrazio publiko desberdinen zeharkako partaidetza nagusi izateagatik –nahiz eta administrazioetatik bat ere ez izan partaidetza handiena duena– publikotzat hartzen diren enpresen gainean egin beharreko kontrola definitzea.*

XI.5. IBILGETUA

- *Kontabilitate publikoko printzipioak aplikatzea ibilgetu materialeko elementuak erregistratzeko, ondoko alderdiak kontuan hartuz:*

a) *Haiek aitortzeko eta baloratzeko irizpide orokorrak, altetarako, bajetarako, gehikuntzetarako eta hobekuntzetarako ere bai.*

b) *Balorazioaren zuzentasunerako arauak eta prozedurak, ondasun horien amortizazioak eta gainerako balio-galerak islatzeko.*

c) *Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako kontu berariazkoak erabiltzea, batetik erabilera orokorrari emandako ondasunak eta bestetik ibilgetu ez-materiala nahiz atxikitako eta lagatako ondasunak islatzeko.*

- *Ibilgetu materialeko kontabilitate-saldoak berriki eta behatu bidez, eta behar diren prozedura administratibo eta kontabilitatekoak ezar bidez, bermatzeko saldo horiek izaera horretako ondasun-multzoa uneoro behar bezala islatzen dutela.*

- *Gobernuaren Ondareko Ondasunen Inbentario Orokorra oinarri harturik, hura osatzea gaur egun jasota ez dauden ondasunekin (esate baterako, erabilera orokorrerako inbertsioak, immateria-lak eta inbertsio finantzarioak), eta osagarri gisa aplikatzea kontabilitate publikoko irizpideak, baloratzeko inbentario horrek kontabilitate-saldoak berma ditzan.*

- *Ganbera hau behin eta berriro azpimarratzen ari den legez, kontabilitateko datuak eta inbentari-okoak aldian-aldian bateratzeko aukera emanen duten prozedurak taxutzea. Horretarako, ukituriko zerbitzuen arteko koordinazio egokia izan beharko da.*

XI.6. BESTE ZENBAIT

- *Azkenik, eta munduko ekonomiaren egungo egoeran (segur aski eragina izanen baitu Foru Ogasunaren egoeran), aurrekontuak nola egin diren aztertzea beren exekuziorako hasierako aurrekontuarekiko desbideratze nabarmena gertatzen den kontusailetan. Batez ere, kontuan hartuta, aurreikus daitekeenez, zerga-sarreretan jaitsiera gertatzen bada, balitekeela nahikoa baliabiderik ez izatea ekitaldian zehar aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.*

Horri dagokionez, gogorarazi behar da enpresa-sektorearen maniobra-funtsa 264 milioi eurokoa zela 2007ko abenduaren 31n.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Eranskina

Aurrekontuko kontusaila	Hasierako kreditua	Kreditu-aldaketak	Bateratua	Betebeharra
Estatuarentzako ekarpena	566.244.891	141.013.627	707.258.518	707.258.518
Inbertsioagatiko zerga-gastuak (inbertsioaren eta enpleguaren sustapena)	145.503.000	41.242.845	186.745.845	186.745.845
Hezkuntzako funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira	209.037.353	-24.498.627	184.538.726	181.670.889
Sektore publikoko akzioak erostea	1	180.975.821	180.975.822	180.975.817
Farmazia-prestazioak	160.731.450	-4.133.880	156.597.570	152.211.025
Transferentzia arrunten funts orokorra	144.991.822	232.331	145.224.153	145.224.153
Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko zerga-gastuak.	133.571.000	5.365.025	138.936.025	138.936.025
Etxebizitza-arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak. Foru Programa	50.759.560	10.200.000	60.959.560	58.992.223
NUPen finantzaketa: Iruñeko eta Tuterako campusak	53.562.507	0	53.562.507	53.562.507
Gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatiko zerga-gastuak	51.361.000	-74.613	51.286.387	51.286.387
Funtzionarioen pensio arruntak	49.123.423	373.210	49.496.633	49.496.633
Hezkuntzako aldi baterako langileen ordainsariak	16.779.427	31.328.729	48.108.156	46.987.689
Inbertsioa azkartzeko plana	0	78.308.019	78.308.019	43.497.136
Bideko Ama Birjina ospitaleko funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira	48.929.291	-9.158.139	39.771.152	39.771.152
Nafarroako Ospitaleko funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira	50.075.534	-10.440.113	39.635.421	39.635.421
Itzuli beharrik gabeko laguntzak, inbertsio eta enpleguagatik	42.784.026	-5.399.000	37.385.026	36.126.472
Lehen Hezkuntza. Dirulaguntza pribatua	33.735.259	800.000	34.535.259	34.106.569
Zor publikoaren amortizazioa	1.000	30.049.605	30.050.605	30.050.605
Zorpetzearen interesak	29.726.557	152.952	29.879.509	29.879.509
Iruñea-Logroño arteko A-12 autobiarren kanona	28.817.266	-1.290.515	27.526.751	27.526.751
Funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira Foruzaingoa	26.406.543	494.520	26.901.063	26.901.063
Dirulaguntzak nekazaritzako indus. eta saltokietan inbertitzeko. PDR FEADER	28.200.000	-297.322	27.902.679	26.798.902
Bide-sarearen kontserbazioa	18.536.636	7.985.782	26.522.418	26.522.329
Medikamentuak. Nafarroako Ospitalea	14.311.701	10.680.000	24.991.701	24.516.626
Etxean bertan ematen diren zerbitzuentzako laguntzak	20.000.000	3.363.828	23.363.828	22.411.842
Hezkuntzako gizarte-segurantza	23.130.789	-379.999	22.750.790	22.125.834
Lehen mailako arretako funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira	28.206.567	-7.085.303	21.121.264	21.121.264
Udal funtzionarioen montepioaren kudeaketa	18.591.178	0	18.591.178	18.144.302
Itunak eta hitzarmenak ezgaituen elkarteekin	19.466.747	-350.000	19.116.747	18.099.535
Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria	17.422.054	0	17.422.054	17.422.054
Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa Dirulaguntza pribatua	18.296.524	-1.100.000	17.196.524	16.943.563
Haur Hezkuntzako 2. zikloa Dirulaguntza pribatua	15.295.776	1.200.000	16.495.776	16.418.954
Gizarte Segurantza, Bideko Ama Birjina ospitalea	15.791.668	234.921	16.026.589	16.026.589
Garapenerako nazioarteko lankidetzak.	15.795.287	0	15.795.287	15.148.126
Zerga-gastuak enplegua sortzeagatik	16.844.000	-1.757.879	15.086.121	15.086.121
Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa Dirulaguntza pribatua	13.907.278	1.150.000	15.057.278	14.921.827
I+G+Bn egindako inbertsioagatiko zerga-gastuak	17.871.000	-2.970.629	14.900.371	14.900.371
Osasun-laguntza Unibertitate Klinikarekin	8.534.430	5.833.046	14.367.476	14.367.470
AUDENASA. Merkataritza-politika.	13.422.096	577.410	13.999.506	13.999.506
Enpresentzako dirulaguntzak I+G+B proiektuengatik FEDER	15.000.000	-1.142.718	13.857.282	13.391.994
Osasun-laguntza SJD klinikarekin	11.322.810	2.023.634	13.346.444	13.346.444
Bideko Ama Birjina ospitalean ordezkapenak egiteko kontratatutako ordainsariak	3.090.082	9.743.728	12.833.810	12.833.810
Kotizazio gabeko pensioak	13.148.281	-184.000	12.964.281	12.791.199
Sareekin batera zoladura ematea	9.619.000	4.375.448	13.994.448	12.576.515
ANE funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira	13.247.954	-580.999	12.666.955	12.328.465
Gizarte-segurantza, Nafarroako Ospitalea	11.292.186	985.802	12.277.988	12.277.988
Justiziako funtzionarioen ordainsariak	11.664.012	495.333	12.159.345	12.159.345
Presio handiko horniduretarako plan zuzendaria	11.000.000	5.723.709	16.723.709	12.030.660

**OHARRAK, NAFARROAKO GOBERNUKO
BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONO-
MIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZ-
TUTAKOAK**

Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz eta Nafarroako 2007ko kontu orokorren behin-behineko fiskalizazio-txostena azterturik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ondoko oharrak egin ditu:

19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan ezartzen denez, Comptos Ganberak, duen fiskalizazio-funtzioaren jardunean, bidezkotzat jotzen dituen neurriak proposatu eta gomendatu ahalko ditu foru-erkidegoko sektore publikoaren kontrola eta

kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetze aldera.

2007ko Nafarroako Kontu orokorrei buruzko behin-behineko txostenean agertzen diren ondorioei eta iritziei dagokienez, esan behar da horiek bat datozela kudeaketaren kalitatean eta gardentasunean etengabe hobetzen jarraitzeko interes komunarekin.

Gomendioei dagokienez, berriz, bat egiten dute Ekonomia eta Ogasun Departamentuko hobekuntza-arloen bidearekin.

Iruñean, 2008ko abenduaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

